

UDALBURUA
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALAK 2015eko AZAROAREN 19an
EGINIKO OHIKO BILERAREN AKTA

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo
José Antonio Bartolomé
Montse Angulo
Susana Martín
Josu Artetxe
Lauren Uria
Nerea Goti
Iraida Saenz de Lafuente
Xabier Artiñano

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hamabosteko urriaren hogeita bian, hemeretziak direnean, Udaltzaga Osoa bildu da ohiko bilkura egiteko. Alkatea Gentza Alamillo Udaeta jauna da mahaiburua eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut eta ekitaldiaren fede eman dut.

BERTARATU EZ

DIRENAK:

Esteban Hernando

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak ongi etorria eman die eta gehiagorik gabe ohiko bilkurako gai zerrendan dauden puntuen eztabaidatzeari eta bozkatzeari ekin diote:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2015eko urriaren 22an eginiko ohiko osoko bilkuraren akta.

Josu jaunak (BILDU) azaldu du aurreko bilkuran salaketa bat egin zela. Bere taldea ez dago ados salaketa horrekin, eta hori dela eta, txostena eskatu dute.

Gaiaren inguruko bozketa egin da, eta bertaratutakoek aho batez onetsi dute.

2.- Onestea, bidezkoa bada, ekonomia eta administrazio-baldintza berezien plegua, Aiarako erabilera anitzeko garbiketa zerbitzua prozedura ireki bidez kontratatzeari buruzkoa.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, bozkatu eta aho batez onetsi da.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Aiarako Udalak udaleko eraikinak garbitzeko zerbitzuak kontratatzeko beharra dauka. Izan ere, bertako langileak ez dira nahikoak zerbitzu hori emateko.

IKUSI DA.- Zerbitzuak dituen ezaugarriak aintzat hartuta, esleipen prozedurarik egokiena irekia da, pleguek ezarritako esleipen irizpideekin bat etorritik.

IKUSI DA.- Esleipena arautuko duten administrazio-klausula berezien plegua eta zehaztapen teknikoen plegua idatzi eta espedienteari gehitu zitzaizkiola.

AZTERTU DA horrekin batera emandako dokumentazioa eta bat etorriaz Sektore publikoko kontratuei buruzko legearen testu bateratuaren bigarren xedapen gehigarrian eta 3/2011. artikuluan ezarritakoarekin (azaroaren 14ko 14 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen).

Udalbatzak, aho batez, honako hau **ERABAKI** du:

LEHENENGOA.- Aiarako eraikuntza publikoen garbiketa zerbitzua esleitzeko, irizpide anitzeko prozedura ireki bitartez kontratatzeko espedientea onestea.

BIGARRENA.- Aipatutako kontratazioaren gastua baimentzea 2015ean indarrean dauden aurrekontuko partida hauetan: 920.227.000, 312.227.008, 323.227.010, 323.227.009, 323.227.018 eta 342.211.000. Halaber, etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuetan dagozkion kredituak erreserbatzea.

HIRUGARRENA.- Administrazio baldintza berezien plegua eta kontratua prozedura irekia erabilia arautuko duten preskripzio teknikoen plegua onestea.

LAUGARRENA.- Lizitazio-iragarkia argitaratzea DOUEn, ALHAOn eta Kontratatzailearen Profilean, BERROGEI (40) eguneko epean interesdunek egoki deritzoten proposamenak aurkez ditzaten.

BOSGARRENA.- Alkatearengan eskuordetzea kontratuaren esleipena, Udalbatza Osoak aukeratutako kontratistak esleipenaren proposamenean eskatzen den dokumentazio guztia aurkeztu ondoren.

3.- Onestea, bidezkoa bada, “Luiadondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzea” obraren hamaikagarren ziurtagiria, 2015eko urrikoa. Guztira 85.988,80 euro dira (BEZa barne).

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan, eta bozketa egin da. Aho batez onetsi da.

Hori dela bide, eta

AINZAT HARTU DA.- Udalbatza osoaren 2014ko azaroaren 17ko ebazpenaren bidez, ERAIKUNTZA BIRGAIKUNTZA ARTAPENA, SL enpresari esleitu zitzaion “Luiadondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzea” obra exekutatzeko kontratua, honako zenbateko honetan: 635.642,68 € eta BEZari dagozkion 133.484,96 €.

IKUSI DA.- Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresak aurkeztutako hamaikagarren ziurtagiria eta faktura, 85.988,80 eurokoa (BEZa barne).

AINZAT HARTU DA.- Obra-zuzendari D. P. O. jaunak emandako oniritzia.

Udalbatzak, aho batez, honako hau **ERABAKI** du:

LEHENENGOA.- Onestea Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresak igorritako hamaikagarren ziurtagiria. Guztira 85.988,80 euro dira (BEZa barne). Bestalde, aipatutako gastua onestea.

BIGARRENA.- Diruzaintzari agintzea 85.988,80 euro ordaintzeko Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresari.”

4.- Berrestea 488/15 zenbakiko Alkatetza Dekretua, J. M^a O. S. jaunak igorritako lehenengo ziurtagiria onesten duena, PC-01 obra gauzatzeagatik. Obra unitate hori ez zegoen aurreikusita “Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzeko” proiektuaren aurrekontuan, teiltuaren hegala konpontzeko. Guztira, 4.988,85 euro da (BEZ barne).

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, bozkatu eta aho batez onetsi da.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- 488/15 zenbakiko Alkatetza Dekretua, J. M^a O. S. jaunak igorritako lehenengo ziurtagiria onesten duena, PC-01 obra unitatea egiteagatik. Obra unitate hori ez zegoen aurreikusita “Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzea” proiektuaren aurrekontuan, teiltuaren hegala konpontzeko. Guztira, 4.988,85 euro da (BEZ barne).

Udalbatza osoak, aho batez, hau **ERABAKI** du:

Lehenengoa.- Berrestea 488/15 zenbakiko Alkatetza Dekretua, J. M^a O. S. jaunak igorritako lehenengo ziurtagiria onesten duena, PC-01 obra unitatea egiteagatik. Obra unitate hori ez zegoen aurreikusita “Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzea” proiektuaren aurrekontuan, teiltuaren hegala konpontzeko. Guztira, 4.988,85 euro da (BEZ barne).

5.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Etxaurren ikastolako IGEren arteko lankidetzaz hitzarmena, eskolaz kanpoko jardueren gastuak ordaintzeko.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, bozkatu eta aho batez onetsi da.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Etxaurren IGE deituriko Elkartearen gizarte eta kirol arloko eginkizun garrantzitsua gauzatzen ari dela, udalerrian kultura eta kirol jarduerak asko sortzen baitu, eta, zehazki, haurren artean.

IKUSI DA.- Udalak interes berezia duela eskolaz kanpoko ordutegian jarduerak egiteari eusteko eta sustatzeko, hau da, eskolaz kanpoko jarduerak deiturikoak.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Etxaurren ikastolako ikasleen gurasoen elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena, 2015-2016 ikasturtean eskolaz kanpoko jarduerari dagokien diru-laguntza ordaintzeko.

AINZAT HARTU DA.- Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak 2015eko azaroaren 10ean emandako aldeko irizpena.

Udalbatzak, aho batez, **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta Etxaurren ikastolako ikasleen gurasoen elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena, eskolaz kanpoko jarduerari dagokien diru-laguntza ordaintzeko.

Bigarrena.- Aiarako Udaleko alkateari eskumena ematea aipatu hitzarmena sinatzeko.

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Etxaurren ikastolako IGERi, eta hitzarmenaren bi kopia eranstea, horietako bat behar bezala sinatuta aurkez dezan.

6.- Onestea, bidezkoa bada, Udalaren eta Asociación Cultural Amigos de Etxaurren-Etxaurrenako Lagunak Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, bozkatu eta aho batez onetsi da.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Aiarako Udalak sustatu eta babestu nahi dituela udalerrian antolatzen diren kultura- eta jai-adierazpenak.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Asociación Cultural Amigos de Etxaurren-Etxaurrenako Lagunak Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmenaren xedea dela Etxaurrenako ermita dela-eta irailean antolatzen diren jaiak sustatu eta indartzea.

IKUSI DA.- Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak 2015eko azaroaren 10ean emandako aldeko irizpena.

Udalbatzak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta Asociación Cultural Amigos de Etxaurren-Etxaurrenako Lagunak Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena, Etxaurrenako ermita dela-eta irailean antolatzen diren jaiak sustatu eta indartzea xedea duena, 2015 ekitaldian.

Bigarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea, hitzarmena sina dezan.

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Asociación Cultural Amigos de Etxaurren-Etxaurrenako Lagunak Elkarteari; halaber, hitzarmenaren bi ale helaraziko zaizkio, horietako bat behar bezala sinatua itzul dezan.

7.- Aldatzea, bidezkoa bada, Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren III. Eranskina, “Euskara arloko diru-laguntza ekintza”, AEKri 600 euroko diru-laguntza zuzena emateko, Korrika 2015 ekintzaren gastuen zati bat ordaintzeko.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, bozkatu eta aho batez onetsi da.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- 2015eko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa 2015eko martxoaren 31ko osoko bilkuran onartu zela, Udaleko 2015eko aurrekontu orokorraren eranskin gisa.

AINTZAT HARTU DA.- Plan horren III. eranskinean, Euskara arloko diru-laguntzen ekintzei buruzkoan, jasota ez zegoela AEKren alde izendatutako diru-laguntzarik, euskararen aldeko “Korrika 2015” antolatzeko.

AINTZAT HARTU DA.- Udalbatzak AEKri diru-laguntza eman nahi diola jarduera hori antolatzen laguntzeko, eta Udalak ematen dituen diru-laguntza guztiak Diru-laguntzen Plan Estrategikoan jasota egon behar dutela.

Korporazioak 2015eko azaroaren 19an egindako osoko bilkuran, aho batez, honako hau **ERABAKI** du:

LEHENENGOA.- Aldatzea Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren III. Eranskina (“Euskara arloko diru-laguntza jarduera”); puntuan honako hau gehituz: “Halaber, AEKri diru-laguntza ematea planteatu du Korrika 2015 sustatu, garatu eta antolatzeko”; eta diru-laguntza guztien laburpena egiten den koadroan zazpi zenbakiko fitxa gehitu da: “Korrika 2015 diru-laguntza”; 600,00 euroko diru-laguntzaren hartzailea AEK izango da eta 335.481.020 partidana kargatuko da.

8.- Onestea, bidezkoa bada, Udalaren eta Menagaraiko Amor Misericordioso ikastetxearen arteko lankidetzaren hitzarmena.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, bozkatu eta aho batez onetsi da.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Menagaraiko Amor Misericordioso ikastetxeak bere zentroan hartutako neska ikasleekin egiten duen eginkizun soziala eta Udalak lan hori sustatzeko duen interesa.

IKUSI DA.- Aiarako Udalak Amor Misericordioso ikastetxearekin eginiko lankidetzaren hitzarmena, hain zuzen ere, aipatu zentroak bere neska ikasleekin abiarazten dituen ekimenak eta ekintzak diruz laguntzeko.

IKUSI DA.- 2015eko azaroaren 11ko Informazio Soziosanitario, Berdintasun eta Immigrazio Batzordearen aldeko txostena ikusita.

Udalbatzak, aho batez, honako hau **ERABAKI** du:

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalak Amor Misericordioso ikastetxearekin eginiko lankidetzaren hitzarmena, hain zuzen ere, 2015. urtean aipatu zentroak bere ikasleekin abiarazten dituen ekimenak eta ekintzak diruz laguntzeko.

Bigarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea, hitzarmena sina dezan.

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Amor Misericordioso ikastetxeari. Hitzarmenaren bi kopia erantsiko dira, aleetako bat behar bezala sinatuta itzul dezan.

9.- Erakunde Adierazpena: Azaroaren 25a, emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) jakinarazi du hilaren 25ean, 19:00etan kontzentrazio bat egitea proposatu dela.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

ERAKUNDE ADIERAZPENA

Azaroaren 25a dela-eta, data horixe izendatu baitu Nazio Batuen Erakundeak “Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna” gisa, gure gaitzespenik irmoena adierazi nahi dugu emakumeen aurkako edozein indarkeria-adierazpenetik, zeinahi ere den (fisikoa, psikologikoa, sexuala, sinbolikoa...); bai halaber sexismo-modu guztiekiko, barne daudelarik finenak edo normalizatuenak, hala nola sexuen arabera rol estereotipatuak ezartzea edo bizitzaren esparru askotan emakumeak ikusgai ez egotea, besteak beste. Era berean, berretsi nahi dugu arazo estruktural baten aurrean gaudela, eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunik eza oinarri duenez, ezinbestekoa dela berdintasun-politikak baliatzea, adituek zein nazioarteko erakundeek gomendatzen duten bezalaxe.

Emakumeen aurkako indarkeria gizartearen egituraren bertan oinarritzen da; izan ere, oraindik ere aukera desberdinak eskaintzen zaizkie emakumezkoen eta gizonezkoen, eta oraindik ere jaiotza-sexuaren arabera pertsonen askatasuna mugatzen da. Saiatu behar dugu bestelako gizarte bat eraikitzen, non pertsona guztiek askatasuna izango duten nahi duten bezalakoak izateko, non aukera izango duten potentzialtasun osoa garatzeko, eta non giza eskubideei begira berdintasunezko eta begirunezko tratua jasoko duten.

Gure xedea da pertsona guztiekiko tratua onak bermatuko dituen gizarte batean bizitzea, urrats bat gehiago emango duen gizarte bat, emakumeenganako indarkeriaren aurka agertzearekin batera, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde argi azalduko den gizarte bat. Gure aldarrikapena da pertsonen arteko harremanak errespetuan, autonomian eta berdintasunean oinarrituko dituen gizarte bat. Errespetatzea ez da bakarrik erasotzea; aitzitik, berorren esanahia ere da pertsona bakoitzak, berdintasunik ez dakarren mugarik gabe, bere bizitza-ibilbidea irudikatu ahal izateko bermea edukitzea.

Erakundeetatik gure ardura sozial eta politikoa onartu behar dugu, tratu onak sustatuko dituen gizartea eraikitzeko orduan, eta horretarako gure aurreiritziak, rolak eta eguneroko jarrerak gure baitatik berrikusten hasi.

Indarkeria matxistaren azken estadioek, bortxaketek, jipoitzeak eta erailketek gora egin duten moduan, zeharkako beste indarkeria matxistek, eguneroko mikrobiolentziek ere, gora egin dute, eta herritarren artean barneratu eta normalizatzeko arriskua ere agertu da.

Horrela, 2015 urtean asko izan dira bortxaketa saiakerak, neska eta emakumeen bizitzaren gaineko kontrolak (kontrol ekonomikoak, fisikoak, sexualak, afektiboak, sozialak, kulturalak), emakume ugari jasan behar izan dute eguneroko jazarpenik (irainak, bazterkeriak, gutxiesteak) edo bestelako erasoak (prekarizazio laborala, enplegurik eza, zaintza lanen karga isila). Eguneroko mikrobiolentzia barneratuak eta normalizatuak daude jendarte ere patriarkalen baitan.

Premiazkoa da indarkeria sexistarekin harremana duten kasuak eta salaketak egunerokotasun normalizatutik desagerraraztea. Jai- zein jolas-esparruetan gure askatasuna baldintzatzen duten jazarpen eta gehiegikeria sexistek hor jarraitzen dute. Halaber, kezkarriak dira lan-esparruan jazarpen sexistari buruz dauden datuak. Sexu ezberdineko pertsonen arteko botere harremanak eta gazte belaunaldien artean agertzen diren balore patriarkalak gero eta gehiago dira, eta, aldi berean, gazte askok beraien kideen aurka indarkeria erabiliz haien arteko harreman desorekatuak eraikitzen dituzte.

Jendarte eredu ezinbestean aldatu behar dugu indarkeriarekin amaitu ahal izateko. Indarkeria horiek guztiak, makroak zein mikroak, desagerrarazteko modu bakarra, berau sostengatu, zuritu edo babestu dezakeen jardun oro alboratuz lortuko da.

Hori dela eta:

Lehenengoa: Aiarako Udalak gure eskuduntzen esparruan udal politika aktiboa, integrala eta koordinatua garatzeko, tratu onen eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egitearen konpromisoa hartzen du.

Bigarrena: Aiarako Udalak, 2016ko aurrekontuan Berdintasuna arloko baliabide tekniko eta ekonomikoak indartzeko konpromisoa hartu du.

Hirugarrena: Aiarako Udalak Foru Aldundiari eta Emakunderi dei egiten die, emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko aurrekontu partidak handitu, berdintasun zuzendaritzak indartu, epaitegietako genero unitateak doitu eta legedia errebisatzeko konpromisoa har dezaten.

Laugarrena: Aiarako Udalak herritarrak berdintasunaren aldeko konpromiso pertsonal eta kolektiboak hartzera deitzen ditu. Konpromiso hau urteko egun guztietara zabal dezatela eskatzen die. Hala nola, azaroaren 25a dela-eta burutuko diren ekitaldietan edota gazteen arteko prebentzio eta hezkuntzarako "Beldur Barik" izeneko ekimenean.

Bosgarrena: Azaroaren 25erako mugimendu feministak deitu dituen mobilizazioekin bat egiten dugu, eta bertan parte hartzeko deia egiten diogu jendarte osoari.

10.- Udalbatza osoari berri ematea Aurrekontu Egonkortasuna ez betetzearen ondoriozko kontu hartzen duen organoaren txostena, Diruzaintzaren gerakinaren erabilerari buruzkoa.

Ez da gaiari buruzko ezer esan, eta Udalbatza kontu-hartzailearen txostenaren jakinaren gainean dago.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- 2014 urteko likidazioak gastu-partidak sortzeko edo daudenak handitzeko, nahitaezkoak diren 2016. urteko aurrekontura itxaron ezin duten ordainketak egiteko, ateratako diruzaintzako gerakinaren zati bat gastu orokorrak ordaintzeko erabiltzeko beharra.

IKUSI DA.- 2015eko azaroaren 16ko Idazkariaren eta kontu-hartzailearen txostena, gastuak diruzaintzaren gerakinaren gastu orokorrekin finantza egonkortasuna betetzeari buruzkoa.

AINTZAT HARTU DA.- abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauko 7.1 eta 7.3 artikulua, 17/2014 Foru Arauak emandako Aurrekontu eta Finantza Egonkortasunari buruzkoa.

Udalbatza osoak Aurrekontu Egonkortasuna ez betetzearen ondoriozko kontu hartzen duen organoaren txostena, Diruzaintzaren gerakinaren erabilerari buruzkoa, 2015eko azaroaren 16koaren berri du.

- Hurrengo puntuekin jarraitu aurretik, alkateak honako puntu hau sartzea proposatu du, premia izateagatik: Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzeko lanen esleipenduna den EBA, S.L. enpresaren kontratua luzatzea, obra amaitzeko epea abenduaren 9a da, baina Osakidetzaren azken orduko eskaerak obra amaitzeko epea luzatzea eskatzen dute, abenduaren 30era arte.

Jarraian puntu hau gai zerrendan sartzearen premia bozkatu da, eta Udalbatza Osoak aho batez onartu du.

Ondorioz, honako hau da puntua:

11.- Luzatzea, bidezkoa bada, EBA, S.L. enpresak exekutatu beharreko “Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzea” obraren epea.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- EBA, S.L. enpresak urriaren 22an aurkeztutako idazkia, honako hau dioena:

- Osasun arazoengatik obraren zuzendaria ez da egon irailaren 1etik, eta horrek, obraren abiaduran eragin du.

- Lan batzuk argitu behar dira, baina obraren eskumeneko zuzendariak oraindik ez dute azalpenik eman.
- Obraren zuzendariak funtsezko aldaketak egitea eskatu du, jada egindakoak. Aldaketa horiek denboran eta ekonomian eragiten dute eta obraren zuzendariak horien berri eman du. Baina ez dira egingo zuzendaritzak eta jabetzak baliozkotzat jo arte, arrisku eta ustekabeak saihesteko. Halaber, kontratuan aurreikusi gabeko aldaketak erlazionatu dira, baita zenbatekoa eta jakinarazpen data ere.
- Exekutatzeko epea eta kontratuko beste konpromiso batzuk ezingo dituzte bete, kontratuaren xedea eta forma aldatu baitira, kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik. Hori dela eta, enpresak jabeagoak esku hartzea eskatu du.

IKUSI DA.- EBA, S.L. enpresak azaroaren 3an aurkeztutako idazkia, honako hau dioena:

- urriaren 22an aurkeztutako idatzian adierazitakoa errepikatu da.
- Proiektuan aldaketa berriak egitea eskatu da, baita aurretik egindako obra unitateen aldaketak egitea ere. Kasu batzuetan, obra unitatea berriak gehitzea eskatzen da, eta beste batzuetan, obra unitateak aldatzea aurrekontuaren lizitazioaren % 10 baino gehiago direnak.

Eta obraren aldaketak onestea eskatzen da, kreditu nahikoa gaitzen duen espedientea baimenduz eta obra exekutatzeko epea luzatuz. Dena den, luzapenaren epea ezin da zehaztu, eskumeneko zuzendariak oraindik ez dituelako hainbat partida argitu, eta beste partida batzuk oraindik ez dute aldaketaren proposamen teknikorik.

IKUSI DA.- Azaroaren 16an obraren zuzendariak eta obra exekutatzen duen zuzendariak idatziko txostena, kontratistak aurkeztutako idatziei eta obraren prozesuaren analisiari buruzkoa.

Eta azaroaren 16an obraren zuzendariak idatzitako txostena, aurrekontuaren analisiari buruzkoa.

HONAKO HAU GERTATUTA.- Obraren eskumeneko zuzendariak idatzitako txostenetik honako hau ondorioztatu da:

- Obraren zuzendariaren betebeharrak obra-exekuzioaren zuzendariaren esku utzi dira denbora baterako, eta berarekin koordinazio egokia lortu da. Hortaz, eskumeneko zuzendariaren zerbitzuak eman dira eta ez du eragin obraren abiadura normalean. Izan ere, momentu oro argibideen eskaerei erantzuna eman zaie, Aginduen Liburuak eta dokumentazio grafikoak xedatzen duenaren arabera; bertan, argibideen ebazpena zuritzen da
- Ez da egon udalari eta obraren eskumeneko zuzendaritzari egotzi dakiekeen atzerapenik, ezta zeharkako kosturik ere, argibideen eskaerei erantzuteko hartutako denboragatik. Epea handitzea eta eraikitzaileak aipatutako zeharkako eta zuzeneko kostuak, obraren abiaduran eragin dezaketenak, kontratistari egotzi ahal zaizkio berak aurkeztu baititu

proiektuak azaldutako partidak aurkezteko proposamenak. Gai horrek ez du zerikusirik exekutatzeko-prozesuarekin eta gainera, ez dira obraren beharretatik ondorioztatzen. Partidak aldatzeko asmoz aurkeztu dira, zalantzezko argudioak emanez (onartezintzat hartu direnak) eta denbora galduz. Argudio horiek kontratistaren errua dira.

HONAKO HAU GERTATU DA.- Eskumeneko zuzendarien txosten teknikoak, argitu beharreko gai guztiak proiektuan argi eta garbi azalduta zeuden eta ez zuten azalpen beharrik, edo eskumeneko teknikariak argitu dituzte. Azken kasu horretan idatziz jaso dira emandako erantzunak, aginduen liburuan, erantzuna emateko epe bat jarrita. Dena den, argibide bakoitza eskatu zenean, baita erantzunak eman zirenean, aurretiko obrak amaitu gabe zeuden. Eta obra horiek beharrezkoak ziren lan horiek exekutatzeko, hortaz, ez da obraren eskumeneko zuzendariari egotzi daitekeen inolako atzerapenik egon.

HONAKO HAU GERTATU DA.- Eskumeneko zuzendariaren txostenaren 1.4 puntuan honako hau azaltzen du: egin diren aldaketa bakarrak Osakidetzako zerbitzu teknikoak aurkeztutako proposamenei dagozkienak direla. Proposamen horiek urriaren 5ean egin ziren eta administrazio bulegoaren tamaina aldatzeko eskatzen dute, espazio hori txikituz, ataria handitzeko helburuarekin. Aldaketa horrekin larrialdien kontsultako leioa txikituko da, estalkiaren altzaria handituko da, datuen konexioen oinarriak eta oinarri elektriko berriak gehituko dira, erradiadoreak tokiz aldatuko dira, eta azkenik, megafonia zirkuitua handituko da.

HONAKO HAU GERTATU DA.- Obra-zuzendariaren txostenean, aurrekontuaren analisiari buruzkoan, zehatz-mehatz aztertu dira eraikitzaileak eskatutako obraren partidak, akatsak, neurketaren gehiegikeriak eta 2015eko uztailan onartutako prezio kontraesankorrak. Eta berriz esan da obra unitate berriak ez direla gehituko, eta deskribatutako partida gehienak onetsiko direla, eskatutako prezioak oinarritzat hartuta. Honako partida hauek zati batean soilik onetsi dira:

RF55-UD.- Sarreran eta pasilloan argiteria berria jartzea: 1.120 euro.

RF59-UD.- 6 loki exekutatzeko: 535,50 euro.

Eta honako partida hauek baztertu dira, ez direlako beharrezkotzat jo:

- RF53-UD- Bideo-atezainaren instalazioa aldatzea.
- RF 54-UD.- Osasun zentrora sartzeko ateko txirrina.
- RF56-UD.- bertikalki jarritako etengailuak aldatzea.
- RF 60 UD.- piztutako koadroak aldatzea eta kanpoko argien zirkuitua aldatzea.

- RF 64 UD.- urbanizazioko pizte-sistema hornitzea eta jartzea, eguneroko ordutegia, 7 eguneko zikloa eta argi-zelula duen ordulari astronomiko batekin.
- RF 65 UD.- erabilera anitzeko pizte-sistema hornitzea eta jartzea.
- RF 66 UD.- sarrerako ate automatikoen linea eta pulsadoreak aldatzea.
- RF 68-UD.- lursailera sartzeko hormigoia txikitzea, bideratze elektrikoari bidea irekitzeko, baita edukiontzian materiala kargatzea eta zabortegira eramatea ere.

HONAKO HAU GERTATU DA.- Aurrekontuaren analisiari buruzko txostenak honako hau dio: obra unitateen neurketen kostuak, eta prezio kontraesankorren aldaketaren kostuak (2015eko uztaila) ez du kontratuaren aurrekontuaren % 10 gainditzen. Horrenbestez, obraren azken aurrekontua exekutatuako obrara egokitu da, aipatuak aldaketak aintzat hartuta eta proiektuaren partida, aurrekontua eta prezio kontraesankorrak oinarri hartuta, obrari dagozkion neurketak egin ondoren.

HONAKO HAU GERTATU DA.- Kontratua arautzen duen baldintza ekonomiko eta administratiboen pleguko XXII. klausulak, eta administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onesten duen urriaren 12ko 1098/2001 Legeko 160 eta 162. artikuluek xedatzen dutenaren arabera, azaroaren 14ko 3/201 Errege Dekretuaren 234.1 eta 3. artikuluei jarraikiz (SPKTB), kontratazio-organoak onetsi aurretik aldaketak egin ahalko dira, eta horiek kontratistak bete beharrekoak izango dira aurrekontuan aurreikusitako unitateen kopurua aldatu behar denean. Betiere aldaketa horiek kontratuaren % 10 gainditzen ez badute. Halaber, aipatuak aldaketa horiek hileroko baloratuak zerrendetara gehituko dira eta hileroko ziurtagirietan jaso eta ordainduko dira.

HONAKO HAU GERTATU DA.- Urriaren 5ean proposatuak aldaketak Osakidetzak proposatuak dira, eta interes publikoagatik proiektuan aurreikusitako unitateetan egindako neurketetako aldaketak dira. Dena den, ez dute gainditzen aurrekontuaren % 10, eta kontratistak bete beharrekoak dira, kontratazio-organoak ezer esan gabe.

Esandakoa bermatzeko akordio hau onartu da, kontratistak aurkeztutako idatziei erantzuna emanez eta udalak onartu dituela berriz esanez. Nolanahi ere, obraren aldaketen onespina ez da bideratu (kredituen gaikuntza espedientea baimenduta); izan ere, kontratuaren prezioan egindako aldaketak, hileroko zerrenda baloratuetan gehitzen joango dira eta hileroko ziurtagirietan ordainduko dira; azkenik, obraren azken ziurtagirian zehaztuko dira, eta ziurtagiri hori udalak onartu beharko du, obraren zuzendariak igorritako neurketa eta txostenekin bat etorritik. Dena den, aintzat hartu beharko dira proiektuan aurreikusitako partidak, aurrekontua eta obraren neurketak.

HONAKO HAU GERTATU DA.- Obraren zuzendariak idatzitako txostena aintzat hartuta, interes publikoko arrazoiengatik, epea 2015eko abenduaren 30era arte luzatu da. Horrela, obrak amaituko ahalko dira kontratistak aurkeztutako egutegiari kasu eginez, udalak onartutakoa, eta Osakidetzak eskatutako aldaketa txikietara egokituz. Horrenbestez, egutegia egokitu beharko da luzatutako epe horretara.

Dena den, ez da beste luzapenik emango, ez bakarrik kontratistak eskaera beharrezko baldintzetan ez aurkezteagatik (atzerapena sortu denetik hasita eta luzapena zenbatekoa izango den zehaztu denetik 15 egunetan), baita administrazioari edo obraren zuzendariari egotzi daitekeen atzerapenik frogatu ez delako ere. Hortaz, kontratista kontratua betetzera behartuta dago, arrisku eta menturan, hasieran aurreikusi zen datan (abenduak 30).

HONAKO HAU GERTATU DA.- Hori guztiagatik, obren exekuzioa azkartu eta epea egokitu behar da luzapenean zehaztutako epera. Bestela, kontratistari egotzi ahal izango zaion atzerapena egongo da eta administrazioak erabaki beharko du kontratua amaitzea edo, bidezkoa bada, interes publikoagatik, epea berriz luzatzea. Baina nolana ere, atzerapena kontratistari egotzi ahal zaiola frogatzen denean, luzapen honi zigorrak erantsiko zaizkio. Horrez gain, udalak diru-laguntza galduz gero, kalte-ordaina eman beharko dio kalte-galerengatik, baldintza-pleguan aurreikusten den bezala.

AINZAT HARTU DA.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 210, 211, 219, 234.1 eta 2. artikuluetan xedatutakoa.

Eta Herri-administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 97. artikulutik 147. artikulura bitartean, eta ondorengoetan xedatutakoa.

Udalbatzak 2015eko azaroaren 19an egindako osoko bilkuran, aho batez, honako hau **ERABAKI** du:

Lehenengoa.- Kontratistari jakinaraztea ez dagoela kontratua aldatzeko edo partidak edo unitate berriak onesteko espedientea abiarazten duen aldaketa garrantzitsurik; Osakidetza proposatutako aldaketak baino ez dira, eta udal honek beharrezkotzat jotzen ditu, interes publikoak direla eta. Aldaketa horiek ez dakarte obra-unitate berriak sortzea, ez dute gainditzen kontratuaren aurrekonturen % 10; hortaz, kontratistak bete beharrekoak dira eta kontratua bere arrisku eta menturan gauzatu beharko du.

Prezioan aldaketaren bat egiten bada, exekutututako obregatik eta obraren zuzendariak agindu eta oniritzia eman badu (azaroaren 16ko txostenari jarraikiz), eta udalak onartzen badu aldaketa hori, administrazioak ordaindu egingo du; proiektuaren aurrekontuko prezio eta partidak aintzat hartuz. Halaber, obraren neurketa erreala ere aintzat hartuko dira, eta hileko zerrenda baloratueta gehitzeaz gain, hileko ziurtagirietan jaso eta ordainduko dira. Azkenik, obraren azken ziurtagirian, bidezkoa bada, kreditu gehigarria onetsiko da.

Bigarrena.- Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzeko obra amaitzeko epea luzatzea edo egokitzea, eta kontratuko betebeharrak betetzea 2015eko abenduaren 30erako, interes publikoagatik. Halaber, exekututze epea luzatzeko beste eskaera bat baztertu da, kontratatu duen administrazioari edo obraren zuzendariari egotzi ahal zaizkion atzerapenak direla-eta.

Kontratistari eskatzea, zazpi eguneko epean (jakinarazi zaion egunetik kontatzen hasita), obraren egutegia egokitzea emandako luzapenera, obren exekuzioa azkartuz. Halaber, udalari jakinaraztea kontratuko betebeharrak beteko dituela, xedatutako baldintzen arabera.

Kontratistaren erruz, obra luzatutako epean gauzatzen ez bada, baita beste betebeharren bat ere, udal honek izango du eskumena kontratua amaitzeko edo, interes

publikoagatik, berriz luzatzeko. Horrela gertatzen bada, kontratistari atzerapenagatiko zigorra ezartzeaz gain, kalte-ordaina eskatuko zaio udalak diru-laguntza galduz gero, kontratua arautzen duen baldintza ekonomiko eta administratiboen pleguari jarraikiz.

Kontratistari eskatzea obren exekuzioa azkartzea eta onartutako egutegia errespetatzea; izan ere, oraingoz ez dira betetzen ari, prezio kontraesankorrek obrarekin jarraitzea oztopatzen dutelako.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta txosten teknikoaren kopia jakinaraztea interesatuari. Erabaki honen lehen puntuaren aurka udal honen aurrean eta hilabeteko epean birjarpenezko errekurtsora jar dezakeela jakinaraziz, edo zuzenean administrazioarekiko auzibide-errekurtsora jo Gasteizeko Administrazio Auzibideetarako Epaitegiaren aurrean bi hilabeteko epean.

- Jarraian, Alkateak premiazko beste puntu bat gehitzea proposatu du.

Honako hau proposatu du: espedienteari hasiera ematea, jabari eta erabilera publikoko lursailaren okupazio pribatiboa egiteko Repsol Butanori emandako administrazio-esleipena indarrrik gabe uzteko, Otazu auzoan gas-biltegi bat instalatzeagatik.

Gai hori premiazkoz hartzea bozkatu du eta Udalbatza Osoak aho batez onartu du.

Horrenbestez, honako puntu hau eztabaidatu da:**12.- Espedienteari hasiera ematea, jabari eta erabilera publikoko lursailaren okupazio pribatiboa egiteko administrazio-esleipena indarrrik gabe uzteko, Otazu auzoan gas-biltegi bat instalatzeagatik.**

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Horri jarraikiz,

IKUSI DA.- Luiaondoko Otazu auzoko jabari eta erabilera publikoko lursail baten (bertan gas-biltegi bat dago instalatuta) okupazio pribatiboa egiteko jabariko baimena arautzen duen hitzarmena, udalak eta Repsol Butano SA enpresak 2007ko irailaren 18an sinatuta.

HONAKO HAU GERTATU DA.- Hitzarmen horrek 12 urteko epea aurreikusi zuen gehienez, jabari publikoko lursailak erabiltzeko, hitzarmena sinatzetik zenbatzen hasita. Kanon bat ezarri zen eta okupazioa baimentzearen oinarri izan zen pleguan aurreikusitako baldintzetara lotu ziren.

HONAKO HAU GERTATU DA.- Pleguaren hirugarren klausulak ezartzen zuen 12 urteko gehienezko epea bukatzean, Repsol Butano SA enpresak gas-biltegia berehala kendu behar zuela, baita okupatutako lursaila jatorrizko egoeran berriz jarri ere.

Gehitu du, hori guztia Korporazioak esleipena indarrrik gabe uzteko eskumenari eraginik sortu gabe egingo dela, adostutako epea bukatu baino lehen, baldin eta interes publikoko bat-batean hasitako baldintzek egiaztatzen badute.

HONAKO HAU GERTATU DA.- Gas naturaleko sarea Luiaondora iritsi da. Beraz, jabari publikoko lursailetan dagoen biltegiari orain ez zaio erabilerarik ematen, eta adostutako kanona ez da ordaintzen. Ondorioz, interes publikoko arrazoiek justifikatzen dute bere garaian esleitutako baimenari bukaera ematea, horren oinarri izan zen aprobetxamendua agortzeagatik, okupazioa egitea baimentzeko bere garaian adostu ziren baldintzak ez betetzeagatik, eta pleguan espresuki adostu zelako korporazioak esleipena indarrrik gabe utz zezakeela interes publikoko behin-behinean sortutako baldintzek justifikatzen bazuten, eta horrela dela egiaztatu da.

AINTZAT HARTU DA.- Azaroaren 3ko Administrazio Publikoen Ondareari buruzko 33/2003 Legearen 100. artikuluan xedatutakoa.

Udalbatza Osoak 2015eko azaroaren 19an eginiko ohiko bilkuran honako hau **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Administrazioko espedienteari hasiera ematea, Luiaondoko Otazu auzoko jabari eta erabilera publikoko lursail baten okupazio pribatiboa egiteko eta bertan gas-biltegi bat instalatzeko esleipena edo jabariko baimena indarrrik gabe uzteko; interes publikoko arrazoiak direla eta, orain biltegi horri erabilerarik ematen ez zaiolako, aprobetxamendua agortu baita, eta adostutako kanona ordaintzen ez delako, eta ondorioz, baimentzeko oinarri izan ziren baldintzak betetzen ez dira eta.

Interesdunari ohartaraztea esleipena indarrrik gabe utziko duen ebazpenaren ondorioz, Repsol Butano SA enpresak gas-biltegia hilabeteko epean kendu beharko duela, baita okupatutako lursaila jatorrizko egoeran berriz jarri behar duela (bere ondarearen kontura). Epe horren barruan borondatez ez badu betetzen, udalak gehienez 10 hertsapen-isun jartzeko eskumena izango du, 600 eurokoa bakoitza. Horiek ordaintzeko hileko epeak egongo dira. Horrez gain, udalak exekuzio subsidiariora jo ahal izango du, baita gastuak behin-behinean likidatu, kentzeko beharra duenaren ondarearen kargura. Beharrezkoa bada, premiamendu-bidera jo dezake (ondarearen aurrean).

Bigarrena.- Interesdunari 15 eguneko epea ematea, alegazioak egiteko. Jakinarazten zaio epe horretan alegaziorik egiten ez badu, esleipena edo jabariko baimena indarrrik gabe uzteko ebazpena egingo dela, eta hilabeteko epean aurreko puntuan adierazitako baldintzetan biltegia kentzeko eskatuko dela.

Erabaki hau Repsol Butano SA enpresari jakinaraztea, eta adieraztea izapide honen aurkako errekurtsorik ezin duela jarri, egokitzat jotzen dituzten ekintzei eraginik egin gabe.

- Jarraian, alkateak premiazko beste gai bat sartzeko proposatu du, Alday Ongintzazko Fundazioak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsio batean bertaratzeari buruzkoa,

2014ko abenduaren 18an Udalbatza Osoak hartutako erabakiaren aurkakoa. Erabaki horren bitartez, Ondare Erantzukizuneko eskaera ez da onesten.

Aipatutako puntua gehitzeko premia bozkatu dute, eta Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Beraz, puntu hau eztabaidatu eta bozkatu egingo da.

13.- Bertaratzea Alday Ongintzako Fundazioak jarritako Administrazioarekiko 15/2015 Auzi Errekurtso ohikoan, 2014ko abenduaren 18an Udalbatza Osoak hartutako erabakiaren aurkakoa. Erabaki horren bitartez, eskatutako ondarea ez da onartu.

Horri buruz, Iraida (AB) andreak esan du auzitegietara jo beharrean, nahiago duela besteekin negoziatzea, gaia txarrera ez joaten jarraitzeko. Horregatik, abstenituko dira.

Josu jaunak (BILDU) esan du Alday Fundazioa konturatu behar dela ezin diola etengabe udalari eraso egin, juridikoki erabat frogatuta dagoen gai batengatik.

Besterik esan ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da bozketaren emaitza:

- ALDEKO BOTOAK: 9 (5 EAJ - 4 BILDU)

- ABSTENTZIOAK: 2 AB

Horri jarraikiz,

IKUSI DA.- 15/2015 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Alday Fundazioak Udalbatza Osoak 2014ko abenduaren 18an hartutako erabakiaren aurka jarritakoa. Erabaki horren bitartez, ondare-erantzukizuneko eskaera ez zen onartu.

HONAKO HAU GERTATU DA.- Udal honek beharrezko ekintzak gauzatu behar ditu, bere ondasun eta eskubideak baliatuz.

HONAKO HAU GERTATU DA.- Administrazio-espeditentea eta hori bidaltzea ebazten duen ebazpenaren jakinarazpena bidaltzea interesdun guztiei, 5 eguneko epean, ebazpena eman ondoko 5 egunetan. Bertan adieraziko da, interesdunek hala nahi badute, demandatu gisa aurkeztu ahal direla, helegite honetan, 9 eguneko epean. Hirugarren interesdunik ez dago.

AINZAT HARTU DA.- Tokiko Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legeko 22. eta 68.1. artikuluetan eta bat datozen gainerako betekizunetan aurreikusitakoari jarraikiz,

Udalbatzak Osoak 2015eko azaroaren 19an eginiko ohiko bilkuran honako hau **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA.- 15/2015 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan demandatu gisa bertaratzea, Alday Fundazioak Udalbatza Osoak 2014ko abenduaren 18an hartutako erabakiaren aurka jarritakoa. Erabaki horren bitartez, ondare-erantzukizuneko eskaera ez zen onartu.

BIGARRENA.- Udalbatzaren ordezkariak honako prokuradore hauen esku uztea, prozedura honetan:

- Vitoria-Gasteizekoak: Regina Aniel-Quiroga Ortiz de Zúñiga andrea eta Concepción Mendoza Abajo andrea
- Bilbokoak: Alberto Arenaza Artabe jauna eta Lide Zabala Salegui andrea
- Madrilekoak: Enrique de Antonio Viscor jauna eta Isabel Fernández-Criado Bedoya andrea

HIRUGARRENA.- Udal honen interesen babesa EKAIN aholkularitza juridikoko honako abokatu hauen esku uztea, administrazioarekiko auzi-errekurtso honetan: Juan Landa Mendibe jauna, Nieves Martín Raurich andrea eta Marisol López de Alda Ruiz de Arbulo andrea.

LAUGARRENA.- Administrazio-espeditzea igortzea Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko 2. Auzi Epaitegira.

14.- Alkatetzaren Dekretuak jakitera ematea:

- **Erref.-458.-Kirolgest SL-** Aiaran ikastaroak eta tailerrak emateko kontratuaren aldatzea.
- **Erref.- 459/15.- Etorri Kooperatiba Elkarte.**- Jarduera zuzentzeko neurriak hartzeko eskaera.
- **Erref.- 460/15.- RAC.-** Txakurra inskribatzea arriskutsuak izan daitezkeen txakurren erregistroan.
- **Erref.-461/15.- L eta BTM-** Salmantoneko erakin bateko estalkia birgaitzeko obra-lizentzia ematea.
- **Erref. 462/15.- AXPO IBERIA SL-** 2015eko 3. hiruhilekoan lursaila okupatzeagatik tasa likidatzea.
- **Erref.- 463/15.** - 254/2015 Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoan bertaratzeko Dekretua, REMAISAk 2015-07-17ko Dekretuaren aurka jarrita. Dekretu horrek zabaldegi batean materialak lizentzia gabe biltzeagatik zehapena jarri zuen 225/15 Dekretua berraztertze errekurtsoa ezetsi zuen.
- **Erref. - 464/15 – “Menoiko Eskola” Kultura Elkarte.**- 2013 eta 2014 urteetan jarduerak egiteko emandako diru-laguntzaren zati bat itzultzeko eskaera.
- **Erref.- 465/15 I. S. C.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko Udal Zergaren (2015) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Erref.- 466/15.- MJ. M. M.** - Ordaindutako 2014ko Ibilgailuen gaineko Udal Zergaren ordainagiriaren zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Erref.- 467/15. - F. R. R. y P. D.** – Menagaraiko Jauregui auzoan familia bakarreko etxea eraikitze obrak hasteko baimena ematea.

- **Erref.- 468/15. Luiaondoko Administrazio Batzordea.** Kontsultategiaren eta Gizarte Zentroaren sarreran arkitektura-oztopoak kentzeko obrak sortutako hondakinak kudeatzeko fidantza bueltatzea.

- **Erref. - 469/15. – Luiaondoko Administrazio Batzarra.-** Kontsultategiaren eta Gizarte Zentroaren sarreran arkitektura-oztopoak kentzeko obra-lizentziaren espedientea bukatutzat jo da.

- **Erref. - 470/15. – Luiaondoko Pilota Kluba. -** 2014ko deialdiko kultur- eta kirol-jarduerak egiteko diru-laguntza bueltatzeko espedientearen hasiera.

- **Erref.- 471/15 L. R. L.-** Obra-lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.

- **Erref.- 472/15.-IAG.** – Maroñon harlangaitz-horma eraikitzeako obra-lizentzia, partzela ixteko.

- **Erref.- 473/15. - M. L. O. B. B. –** Luiaondoko etxebizitza batean leihoak aldatzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

- **Erref.- 474/15. - A. B. L. –** Etxegoieneko baserri baten estalkiari teilak berriz jartzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

- **Erref. 475/15tik 487/15ra, biak barne.** – 2015 urterako diru-laguntzak ematea Aiarako kultur- eta kirol-elkarte eta -taldeei. % 60 ordaindu behar da.

- **Erref.- 488/15 -** Jose María Olartekoetxeak eginiko lehen ziurtagiria onestea, Luiaondoko erabilera anitzeko eraikineko frisoaren obrari buruz.

- **Erref.: 489/15.- DSG -** Obrarako udal-lizentzia ematea, Luiaondoko etxebizitza bateko barruko eskailera aldatzeko.

-**Erref.- 490/15.- Luiaondoko Pilota Kluba.-** 2014ko jarduerarako emandako diru-laguntzaren zati bat itzultzeko eskaera.

- **Erref.-491/15.-** Uraren eta Estolderiaren Horniketa Tasaren zerga-erroldak onestea, 2015eko 3. hiruhilekoari dagozkionak.

- **Erref.- 492/15.-** 2015 ekitaldiko Zaborren Tasaren zerga-errolda onestea.

- **Erref.- 493/15.-** Banku-abala bueltatzea Talde Sport Servicios Deportivos SL enpresari.

- **Erref.- 494/15.-** Administrazioarekiko 292/2015 auzi-helegitean aurkeztea. J.J. Z.V. jaunak aurkeztu du, 181/15 Dekretuaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa ezetsi zuen 336/15 Dekretuaren aurka.

- **Erref.- 495/15. Fakturak zenbatzeko F/2015/10 zenbakidun zerrenda onestea.**

- **Erref.- 496/15. - Obra txikiak egiteko diru-laguntza eskatzea -2016 Programa.**

- **Erref.- 497/15. - Alday Fundazioa. - Prozesuko kostuak ordaintzeko epea eman da.**

- **Erref. 498/15tik 502/15ra, biak barne.** – 2015 urterako diru-laguntzak ematea Aiarako kultur- eta kirol-elkarte eta -taldeei. % 60 ordaindu behar da.

- **Erref.- 503/15.- 2015 ekitaldiko ekonomia-jardueren gaineko zergaren zergadun-errolda onestea.**

- **Erref.- 504/15.-** Udaleko funtzionarioei eta langileei ordaintzea 2012ko aparteko ordainsariaren % 26,23.

- **Erref.: 505/15.-** Menagarai-Beotegiko Administrazio Batza.- Obra-lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatu zaio.

Udalbatza jakitun geratu da.

15º.- Eskaerak eta galderak.

- Xabier jaunak (AB) honako idazki hau irakurri du:

“Udalbatza Osoaren galderak

Ostegunean, 2015eko martxoaren 12an, Luiaondoko kontzejju-aretoan, HAPOaren aurrerapenaren erakusketa egin zen, eta hori dela eta, garai hartan alkatea zen Josu Artetxek ordu bat lehenago Barrena kaleko (La Vega auzoa bezala da ezaguna) bizilagunei deialdia egin zien, auzo horretako aparkatzeko eta aisialdiko arazoak lantzeko.

Bilera horretan honako hauek egon ginen ere: orain Aiarako alkatea den Gentza Alamillo, orduan Luiaondoko Administrazio Batzarreko errejidore-batzarburua, HAPOa idazten zuen taldea, Iñigo Pinedo, Iratxe Parro, Esteban Hernando, Lauren Uría, zenbait bizilagun eta ni neu.

Honen bidez, adierazi nahi dut era batera edo bestera ordeztuta geundela gaur Udalbatza Osoa osatzen duten alderdi politiko guztiak eta herritarren plataforma.

Bilera horretan denok nahi genuen auzoko aparkatzeko eta aisialdiko arazoa konpontzea, eta Gerardo Molpecererek, HAPOa idazten zuen taldearen arduradun gisa, adierazi zuen “orain” dela momentua auzo horretako etxeen atzeko aldearekin muga egiten duen lursailaren jabearekin hitz egiteko, eta ados jartzeko, aurreko ustezko okupazioa planteatzeko, eta lursail horiek aparkatzeko eremu gisa erabiltzeko. Horrez gain, planteatu zen HAPOa onetsi baino lehenagoko negoziaketa hori egokiena litzatekeela planean akordio hori jasotzeko, eta geroago HAPOa aldatu behar ez izateko, jasotzen duenaren erabaki ezberdina hartzeagatik”.

Gobernu-talde hasi berriak eguneratzeko denbora izan du, eta horren ostean, Xabier jaunak (AB) galdetu du ea lursaileko jabearekin hitz egin den.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du duela bi aste Gerardok, Plan Orokorren idazleak, esan ziola Las Vegas auzoko antolamenduan lan egiten ari zirela. Beraz, idazle-taldeak informazioa jaso nahi du eta azterketa egin, eta ondoren, jabearengana joan eta egoera planteatu. Batzordean aztertuko da zer egin eta Administrazio Batzarrarekin hitz egingo da.

Lauren jaunak (BILDU) esan du bilera horren ostean ondorioak helarazi zitzaizkiola jabeari, eta ondo hartu zituela. Hala ere, akordioaren ezaugarri jakinak azaldu behar zaizkio.

- Iñigo jaunak (EAJ-PNV) esan du talde politikoek, elkarteek eta administrazio batzarrek eskura dutela ekipamendu informatikoa, egin nahi duten edozein tramiterako, aldundiaren sarrerarekin linea zitura du eta. Halaber, aipatu du talde politikoek sarbidea dutela “sartu” programara, sarrera eta irteera guztiak kontsultatu ahal izateko. Udaleko funtzionarioa den Andonik du horretarako pasahitza.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hemeretziak eta hogeita hamar minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamabosteko azaroaren hemeretzian.

OE
ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Izpta.: Gentza Alamillo Udaeta

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos